



Esp. kodea: 2023GFOR0001

Gaia: EKKO programa garatzeko laguntza
ekonomikoak 2024

ALKATEAREN EBAZPENA
N24/00301

Laguntza ekonomikoak emateko deialdiaren oinarriak onartzea, “Haurren trebetasun sozialak lantzeko dinamizazio-estrategietan espezializazioa” deitutako ikastaroa egiteko (2023GFOR0001)

Arrasateko udalak EKKO egitasmoa martxan jarria du (Eskola Kirola Komunitatea Osasuna). EKKOren helburua da LH 5. eta 6. mailetako ikasleek gizarte trebetasunak bereganatzea eta EKKO programarekin jarraitzeko, beharrezkoa da ikasleekin lan-saioak dinamizatuko dituzten langileak prestatzen jarraitzea.

Egitasmoarekin aurrera egiteko beharrezkoa ikusi da lantalde zabalagoa izateko formakuntzarekin jarraitzea, eta zentzu horretan, Arrasaten aisialdi, kirol, hezkuntza eta kultura esparruan haur eta nerabeekin lanean diharduten pertsonen, EKKO egitasmoa dinamizatuko duten begiraleei laguntza ekonomiko banakakoak emanez. Asmoa da orain 9 pertsonako talde bat prestatzea.

2024ko udal aurrekontuetan jasota dago banakako laguntza horiek emateko kontusaila.

Hori ikusita, Ongizate batzordearen proposamena ikusita, legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez

EBAZTEN DUT:

LEHENENGO.- Laguntza ekonomikoak emateko deialdiaren oinarriak onartzea, “Haurren trebetasun sozialak lantzeko dinamizazio-estrategietan espezializazioa” deitutako ikastaroa egiteko.

BIGARREN.- Deialdiaren iragarkia GAOn argitaratzea.

ALKATEA

Sinatzailea/k	Alkatea: Maider Morras Azpiazu			
Kodea	N24/00301	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1A37C.3.ZelA			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1A37C3.ZelA			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				